

KOD.: 2312

A210 - A211 - A212 - A221 - A226

**LEHEN ARIKETA
LEHEN PROBA**

**Denbora, gehienez: 60 minutu.
Galderak: 60.**

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredia.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

- 1.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak. Aukera ezazu ZUZENA:
- Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolahi ere, aldiro berri beharko da, urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan. Udalerriko erroldan inskribatutako pertsonen multzoak osatzen du udalerriko auzotaria.
 - Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolahi ere, aldiro berri beharko da, sei hiletik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan. Erroldan inskribatzeko unean bertan lortzen da auzotar izaera.
 - Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolahi ere, aldiro berri beharko da, bi urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan.
 - Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolahi ere, aldiro berri beharko da, hiru urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan.
- 2.- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du gai hauetan:
- Gizarte-laguntza.
 - Turismoa, aisia eta olgeta.
 - Lurraldearen eta itsasbazterren antolamendua, hirigintza eta etxebizitza.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 3.- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du gai hauetan:
- Garapen komunitarioa. Emakumeen egoera. Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.
 - Merkataritza-burtsak eta merkantziak eta balioak kontratatze gainerako zentroak, merkataritza-legediarekin bat etorritik.
 - Farmazia-antolamendua, Konstituzioaren 149.1.16 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta higiena, Estatutuaren 18. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz.
 - Jabetza intelektuala eta industrialia.
- 4.- Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumena du Estatuaren oinarriko legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearazteko, honako gaietan: Adieraz ezazu erantzun OKERRA
- Ingurumena eta ekologia.
 - Derrigorrezko jabetza-gabetzea, administrazio-kontratu eta -emakidak, bere eskumenen esparruan, eta Euskal Herriko administrazioaren erantzukizun-sistema.
 - Euskal Herriko arrantza-sektorearen antolamendua.
 - Pisu eta neurriak; metalen kontrastea.
- 5.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, langile guztien hautaketa, funtzionarioak nahiz lan-kontratadunak izan, enplegu-eskaintza publikoaren bitartez egin behar da,
- deialdi publikoaren bitartez.
 - lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa askearen bitartez.
 - berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz, baita publikotasun-printzipioa ere.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 6.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluaren aplikazio-eremua hau da:
- 250.000 biztanletik gorako udalerriak.
 - Probintzia-hiriburuak, hiriburu autonomikoak eta erakunde autonomikoen egoitza direnak.
 - 75.000 biztanletik gorako udalerriak, zirkunstantzia ekonomiko, sozial, historiko edo kultural bereziak dituztenak.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

7.- Biztanle-kopuru handiko udalerrietan... Adieraz ezazu erantzun ZUZENA

- a) Zinegotzi ez diren pertsonak ere izendatu ahal izango ditu alkateak Tokiko Gobernu Batzarreko kide, baldin eta horien kopurua batzarkideen herenetik gorakoa ez bada, alkatea alde batera utzita.
- b) Zinegotzi ez diren pertsonak ere izendatu ahal izango ditu alkateak Tokiko Gobernu Batzarreko kide, baldin eta horien kopurua batzarkideen laurdenetik gorakoa ez bada, alkatea barne.
- c) Zinegotzi ez diren pertsonak ere izendatu ahal izango ditu alkateak Tokiko Gobernu Batzarreko kide, baldin eta horien kopurua batzarkideen laurdenetik gorakoa ez bada, alkatea alde batera utzita.
- d) Zinegotzi ez diren pertsonak ezingo ditu izendatu alkateak Tokiko Gobernu Batzarreko kide.

8.- Konstituzioaren 22. artikulua babesean eraturako elkarteei gagozkielarik:

- a) Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun-ondoreetarako bakarrik.
- b) Ez da nahitaezkoa inskribatzea.
- c) Erregistroan inskribatu behar dira, publizitate-ondoreetarako bakarrik.
- d) Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun- eta publizitate-ondoreetarako.

9.- Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan ezarritakoaren ildotik, eskubide hau bermatzen da:

- a) Ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea zaintzeko eskubidea.
- b) Norberaren irudirako eskubidea.
- c) Posta-komunikazioen sekretua bermatzeko eskubidea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

10.- Hemen dago jasota hezkuntzarako eskubidea:

- a) Konstituzioaren 14. artikuluan.
- b) Konstituzioaren 25. artikuluan.
- c) Konstituzioaren 27. artikuluan.
- d) Konstituzioaren 16. artikuluan.

11.- Hemen dago jasota erlijio-askatasunerako eskubidea:

- a) Konstituzioaren 14. artikuluan.
- b) Konstituzioaren 25. artikuluan.
- c) Konstituzioaren 27. artikuluan.
- d) Konstituzioaren 16. artikuluan.

12.- Enplegatu publikoak honela sailkatzen dira:

- a) Karrerako funtzionarioak.
- b) Lan-kontratuko langileak, finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak.
- c) Bitarteko funtzionarioak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

13.- Auzoari buruzko iritziak azaldu eta ideiak proposa daitezkeen espazioari honela deitzen zaio:

- a) Elkargunea
- b) Auzogunea
- c) Gizarte Kontseilua
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

14.- Hau da, gaur egun, Gasteizko elkarguneen kopurua:

- a) 15
- b) 12
- c) 18
- d) 10

15.- Gimnasia-fosoa du Gasteizko kirol-instalazio honek:

- a) Mendizorrotzeko pabilioia
- b) Landatxoko kiroldegia
- c) Arriagako kiroldegia
- d) Ariznabarreko kiroldegia

16.- Rokodromoa du Gasteizko kirol-instalazio honek:

- a) Ariznabarreko kiroldegia
- b) Aranaldeko kiroldegia
- c) Mendizorrotzeko pabilioia
- d) Olaranbeko kiroldegia

17.- Aurrekontuak onestea honen eskumena da:

- a) Ogasun Batzardea
- b) Osoko bilkura
- c) Tokiko Gobernu Batzarra
- d) Eledunen Batzarra

18.- Zuzendaritza-organoetako titularrak izendatzeko eta kargutik kentzeko eskumena honek du:

- a) Osoko bilkura
- b) Tokiko Gobernu Batzarra
- c) Eledunen Batzarra
- d) Alkatea

19.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babeserako 2016/679 Araudi Orokorraren arabera, jarduera ekonomiko batean aritzen den pertsona fisiko edo juridikoari, haren forma juridikoa edozein izanik ere, erregulartasunez jarduera ekonomiko batean aritzen diren sozietate edo elkarteak barne, honela esaten zaio:

- a) Enpresa
- b) Enpresa-establezimendua
- c) Enpresa-taldea
- d) Establezimendu nagusia

20.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen aplikazio-arauak —VI. titulua—, hauei aplikatuko zaizkie:
ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Arabako lurralde historikoko kuadrilla, ermandade eta kontzejuei.
- b) Udal-enpresa publikoei, artikulua honetan aurreikusitako erakundeek ehuneko 65 baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- c) Partzuergoei eta gainerako erakunde instrumentalei, tokiko kapital publikoaren partaidetza nagusitzen bada edo nagusitasunezko lekua toki-erakunde batek badu.
- d) Udalerriei.

21.- Informazioa eskuratzeko baimena emateko edo ez emateko ebazpena, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, epe honetan jakinarazi beharko zaio eskatzaileari:

- a) Gutxienez bi hilabeteko epean.
- b) Gehienez hiru hilabeteko epean.
- c) Gehienez hilabeteko epean.
- d) Ez dago eperik.

22.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen eremu subjektiboa hau da: **ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA**

- a) Errege Etxea, Diputatuen Kongresua, Senatua, Konstituzio Auzitegia eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
- b) Espainiako Bankua.
- c) Merkataritza-sozietateak, artikulua honetako entitateek 100eko 50 baino gutxiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- d) Unibertsitate publikoak.

23.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legeko printzipio orokorra da:

- a) Aukera-berdintasuna
- b) Ekintza positiboa
- c) Ordezkaritza orekatua
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

24.- Aukera-berdintasuna, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako printzipio orokor gisa, hemen dago jasota:

- a) Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluan.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 25. artikuluan.
- c) Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen 3. artikuluan.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

25.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela esan ahal izango da sexu bakoitzak...

- a) gutxienez, % 40ko ordezkaritza badu.
- b) % 50eko ordezkaritza badu.
- c) gutxienez, % 20ko ordezkaritza badu.
- d) Organo-motaren mende egongo da.

26.- Botere publikoen jarduna arautu eta bideratu behar duen printzipio da, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen arabera: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Ekintza positiboa
- b) Soldata-arrakala desagerraraztea
- c) Ordezkaritza orekatua
- d) Genero-ikuspegiaren integrazioa

27.- Ezinezko edukia duten egintzak, 39/2015 Legearen arabera,...

- a) erabat deusezak dira.
- b) deuseztagarriak dira.
- c) baliozkotu daitezke.
- d) delitu izan litezke.

28.- 39/2015 Legearen arabera, baldin eta hilabetetan finkatutako epe baten muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik,...

- a) hurrengo hileko lehenengo egunera arte luzatutzat joko da.
- b) epea hileko azken egunean bukatzen dela joko da.
- c) larunbat, igande eta jaiegunak bazter utziko dira.
- d) hurrengo lehenengo lanegunera arte luzatutzat joko da.

29.- Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira,...

- a) egun baliiodunak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko larunbatak.
- b) egun baliiodunak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko igandeak.
- c) egun baliiodunak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko jaiegunak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

30.- 39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura baten ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, prozedura arautzen duen arauak adierazten ez badu, hau izango da:

- a) Ez dago eperik.
- b) Hilabete.
- c) Urtebete.
- d) Hiru hilabete.

31.- 39/2015 Legearen arabera, Administrazioak baliozkotu egin ditzake egintza deuseztagarriak:

- a) Beti
- b) Inoiz ez
- c) Haien akatsak zuzenduz
- d) Egintzaren arabera

32.- 39/2015 Legearen arabera, jakinarazpen oro epe honetan egin beharko da:

- a) Hogei eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- b) Hilabeteko epean, egintza ematen den egunetik.
- c) Zortzi eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- d) Hamar eguneko epean, egintza ematen den egunetik.

33.- Interesdunek toki hauetan aurkeztu ahal izango dituzte administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak: Aukeratu OKERREKO erantzuna

- a) Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan bakarrik, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan.
- b) Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.
- c) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- d) Indarrean dauden xedapenetan adierazitako beste edozein lekutan.

34.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, administrazio publikotzat jotzen dira:

- a) Estatuko administrazio orokorra.
- b) Autonomia-erkidegoetako administrazioak.
- c) Erakunde publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak oro, administrazio publikoei lotuak edo haien menpeko direnak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

35.- Hemen dago araututa karrerako funtzionarioaren izaeraren galera:

- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 63. artikuluan.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 60. artikuluan.
- c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 35. artikuluan.
- d) Funtzionario-izaerari eutsi egiten zaio beti, hil arte.

36.- Udal erroldan inskribatzean, datu hauek bakarrik jasoko dira nahitaez: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Sexua
- b) Erljioa
- c) Eskola-ziurtagiria edo titulua
- d) Jaiolekua

37.- 7/1985 Legearen 15 artikulua arabera, une honetan lortzen da auzotar izaera:

- a) Jaiotzean.
- b) Erroldan inskribatzeko unean bertan.
- c) Erroldan inskribatzen denetik hiru hilabetera.
- d) Inskribatzen denak edo haren legezko ordezkariak erabakitzen duenean.

38.- Kode Zibilaren arabera, hauek dira antolamendu juridikoaren iturriak:

- a) Ohitura.
- b) Zuzenbidearen printzipio orokorrak.
- c) Legea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

39.- Legeak ez ezagutzeak...

- a) ez du ez betetzetik desenkusutzen.
- b) ez betetzetik desenkusutzen du.
- c) ez betetzetik desenkusutzen du, salbu eta zabalkunderik handieneko egunkarietan argitaratu badira.
- d) ez betetzetik desenkusutzen du, sektore-legeak badira.

40.- Segurtasun publikoaren legeek hauek behartzen dituzte:

- a) Espainiar nazionalitatea duten pertsonak.
- b) Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonak.
- c) Espainiako lurraldean dauden pertsonak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

41.- Hemen dago jasota enplegatu publikoen jokabide-kodea:

- a) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan —Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina—.
- b) Euskal Funtzio Publikoaren Legean.
- c) Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legean.
- d) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.

42.- Enplegatu publikoek printzipio hauen arabera jokatu behar dute:

- a) Objektibotasuna, osotasuna eta neutraltasuna.
- b) Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa.
- c) Kulturaren eta ingurumenaren sustapena.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

43.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 61. artikuluan arautzen diren hautaketa-sistemei gagozkielarik:

- a) Hautaketa-prozeduretan bereziki zainduko da gainditu beharreko probak eta deialdiko lanpostuetan bete beharreko zereginak elkarri ondo egokitzen zaizkiola, eta, hala dagokionean, egin beharreko proba praktiko guztiak ere egingo dira.
- b) Hautaketa-prozesuen objektibotasuna eta arrazionaltasuna bermatuta egon daitezen, probak osatu egin ahal izango dira, ikastaroak edo praktikaldiak gaindituta, curriculum-azalpena eskatuta eta lehiakideei proba psikoteknikoak edo elkarrizketak eginda. Era berean, osasun-azterketak egitea ere eskatu ahal izango zaie.
- c) Hautaketa-organoek izangaiak karrerako funtzionario izatera irits daitezen proposatutako onartuen kopurua ezin izango da deialdiko plaza-kopurua baino handiagoa izan, deialdian bertan aurkakorik jasotzen ez bada behintzat.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

44.- Gasteizko Udaleko prebentzio-plana lantzea honi dagokio:

- a) Udalbatza
- b) Tokiko Gobernu Batzarra
- c) Segurtasun eta Osasun Batzordea
- d) Prebentzio Zerbitzua

45.- Segurtasun eta Osasun Batzordearen zerginak dira, Gasteizko Udalean,...

- a) Arriskuak prebenitzeko planak eta programak egiten, abian jartzen eta ebaluatzen parte hartzea.
- b) Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana diseinatu, ezarri eta aplikatzea.
- c) Langileen prestakuntza eta informazioa.
- d) Prebentzio Planean jasotako dokumentazioa ezagutu eta horri buruzko txostena egitea.

46.- Prebentzioarekin zerikusia duten kontuetan sailtako zuzendaritzei aholkularitza ematea, Gasteizko Udalean, honen zeregina da:

- a) Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- b) Prebentzio-ordezkariak
- c) Sailtako arduradunak
- d) Segurtasun eta Osasun Batzordea

47.- Saitetako zuzendaritzek zeregin hauek dituzte laneko arriskuen prebentzioaren arloan: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Prebentzio-jarduerak garatzeko helburuak eta urteko baliabide-zuzkidura zehaztea.
- b) Segurtasun- eta osasun-arloko arduradunak izendatzea.
- c) Beren saileko Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana onestea.
- d) Prebentzioaren arloko prestakuntza- eta informazio-ekintzak proposatzea.

48.- Prebentzioaren koordinazio orokorra, Gasteizko Udalean, honi dagokio:

- a) Prebentzio Zerbitzuko burua
- b) Saitetako zuzendaritzak
- c) Funtzio Publikoko zinegotzia
- d) Sail bakoitzean Prebentzio Zerbitzuarekin jarduteko dagoen solaskidea.

49.- Herritarren proposamenak eztabaidatu eta lantzeko organoak dira auzoguneak. Gaur egun,...

- a) gizarte-etxe bakoitzeko bana dago.
- b) auzo bakoitzeko bana dago.
- c) zazpi daude.
- d) hamar daude.

50.- Eremu lokalean emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea, honi dagokion zeregina da:

- a) Emakunde
- b) Administrazio lokala
- c) Foru-administrazioak
- d) Autonomia Erkidegoko administrazioa

51.- Gasteizko Udaleko Genero Berdintasunerako IV. Planak aldi hau hartzen du:

- a) 2018-2022
- b) 2016-2020
- c) 2018-2021
- d) 2017-2021

52.- Berdintasun-arloan egiten denaren gaineko kontu ematea printzipio honen barruan sartzen da:

- a) Behar adinako arreta
- b) Paradigma feminista
- c) Gardentasuna
- d) Berdintasun-politiken iraunkortasuna

53.- Ohorerako eskubidea hemen dago jasota:

- a) Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan.
- b) Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluan.
- c) Ez dago jasota Espainiako Konstituzioan.
- d) Espainiako Konstituzioaren 40. artikuluan.

54.- Konstituzioaren 22. artikulua babesean eraturako elkarteei gagozkielarik:

- a) Erregistroan inskribatu behar dira, eratze-ondoretarako.
- b) Erregistroan inskribatu behar dira, publizitate-ondoretarako.
- c) Ez da beharrezkoa inskribatzea.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

55.- Honako hauek osatzen dute Eusko Legebiltzarra:

- a) Lurralde historiko bakoitzeko biztanleekiko proportzionala den ordezkari-kopuru batek.
- b) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinak.
- c) Hiriburu bakoitzeko biztanleekiko proportzionala den ordezkari-kopuru batek.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

56.- Eusko Jaurlaritzak bere eginkizunak utziko ditu:

- a) Legebiltzarraren konfiantza galduz gero.
- b) lehendakariak dimititzen bada edo hiltzen bada.
- c) Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

57.- Eusko Jaurlaritzako sailburuak honek aukeratzen ditu:

- a) Eusko Legebiltzarra
- b) Erregea
- c) Lehendakaria
- d) Lehendakariak aukeratu eta Erregeak izendatzen ditu

58.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera, kultura-ondareko ondasunetara sarbidea dute:

- a) udalerriko auzotarrek
- b) udalerriko egoiliarrek
- c) udalerrian etxebizitza dutenek
- d) udalerrian errotuta daudenek

59.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen arabera, behin-behineko langileen kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak, honek zehazten ditu:

- a) Udalbatza
- b) Gobernu Batzarra
- c) Eledunen Batzarra
- d) Alkatea

60.- Segurtasun eta Osasun Batzordeak...

- a) organo parekideak dira.
- b) organo kolegiatuak dira.
- c) lan-arriskuen prebentzioaren arloan erregulartasunez eta aldizkakotasunez kontsultatzeko daude.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.